



## **Maiatzak 17: LGTB-fobiaren aurkako eguna**

**Gure ikastetxean ez dago lekurik LGTBfobiarentzat**





# Gure ikastetxean ez dago lekurik LGBTfobiarentzat

## Sarrera

Unescoren arabera, "bullying-a edo homofobiarenganako indarkeria ikastetxeetan arazo unibertsala da" eta herri guztietan gertatzen da sinesmenak edo kulturak aparte (2013).  
Repasar en euskera

Barne Ministerioren datuen arabera, gorroto delitu gehienek desiraren orientazioan edo genero identitatean dute oinarria. Repasar euskera

Hori dela eta, beharrezkoa da LGBTBIQko mugimenduari lotutako errebindikazioak egitea, horretarako bi data dauzkagu: Maiatzak 17a, LGBTBIQ fobiaren kontrako eguna<sup>1</sup>, eta Ekainak 28a<sup>2</sup>, LGBTB harrotasun eguna. Gure kasuan, ikastetxetan, egun bi horien errebindikazioak egun berean lantzen eta ospatzen ditugu, Maiatzak 17an hain zuzen, eskola egutegiak aukera hori ematen baitigu.

Ados gaudenez, oraindik, Maiatzak 17ko ospakizun hau egitea ezinbestekoa da; betidanik homosexualitatea, lesbianismoa, transexualitatea eta gorputz ez normatiboak orokorrean sobera urtetan zehar lotsa, atsekabe eta sufrimendu hitzen parean jarri izan da eta.

Ikastetxeei dagokienez, ikerlanek adibide garbiak ematen dituzte, hezkuntza-etapa guztietan aztertutako gatazketako askoren oinarrian generoa dagoela frogatzen dutenak.

Ikastetxeetako sexu-aniztasunari buruzko ikerlanen datuak argiak dira. 2013-2014 ikasturtean, Gehitu eta Guztiok elkarrekin ikerlan bat egin zuten aniztasun afektibo eta sexualarekiko jokabideei buruz, eta, ikerlan horretan, deigarriak dira hegemoniarekin bat ez datozen pertsonen pairatzen dituzten irainei, zurrumurruei eta iskei buruzko datuak. Datu horiek ikusita, badirudi eraso horiek normaltzen ari direla. Ikerlanean, oso nabaria da eraso homofoboek lekuko izan direla esaten duten pertsonen eta eraso horien lekuko izan direla baieztatzen duten pertsonen arteko desfasea; jolastokietako tratu txarrei buruzko datuekin lotu daiteke hori.

Beste ikerlan batzuek antzeko ondorioak ateratzen dituzte. Madrilgo Unibertsitate Konplutenseak egindako "**Aniztasuna eta bizikidetzaren ikastetxeetan**" ikerlana (DBHko, Batxilergoko eta lanbide-heziketako ikasleen eta irakasleen 3.500etik gora galdera-sorta, eta ia berrogeita hamar lantegi Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako maila guztietan, non ia mila haurrek parte hartu baitzuten):

Ikasgelan jazarpena pairatzen dutenen erdiak baino gehiago ikaskide mutilen biktimak dira (% 52,65), eta irainak edo isekak eskolen artean gertatzen dira (% 46,25), eskoletan gertatzen dira (% 41,19), edo jolastokian (% 39,57); ikastetxetik kanpo ere gertatzen dira. Bullying gunea da Internet (% 14,43), eta eskuko telefonoa ere bai (% 7,72). Irainak izateko arrazoi gehienek

---

<sup>1</sup> Egun honetan gogoratu nahi da: Osasunaren Munduko Erakundeak (OME), 1990eko maiatzaren 17an hain zuzen ere, homosexualitatea eta transexualitatea gaixotasun mentalen ataletik kendu zituen, zientziari eta arrazoiari aurre eginez gizartearen zeuden aurreiritzi historikoak gaindituz.

<sup>2</sup> Egun honetan gogoratu nahi da: [LGBT](#) taldeek publikoki ospakizunak egiten dituzten errespetu eta berdintasunaren aldeko aldarrikapenak egiteko. Data hori aukeratu zuten 1969ko ekainaren 28an, Stonewall-en (New York) suertatu ziren istiluak gogoratzeko eta homosexualen liberazio mugimenduaren hastapen bezala hartzen direnak .

zerikusia dute itxura fisikoarekin eta gay edo lesbiana izatearekin edo gay edo lesbiana "itxura" izatearekin.

Bost ikasletik bik etengabe edo maiz entzuten dituzte "lesbi", "marikoia", "marimutilla" eta halako irainak; ustez LGTB direnen aurkako bazterkeriaren lekuko izan da % 46,8; eta hamarretik ia lauk entzun ditu noizbait kolektibo horren aurkako mehatxuak edo gorrotozko hitzak.

Datu horiek agerian jartzen dute zer-nolako eragina duten generoaren muga estuek mutilen identitatea eratzeko moduan. Muga horiek, hain zuzen ere, maskulinitzat jotzen dena honekin guztiarekin erlazionatzearen ondorio dira: indarra, kontrola, abusua, gogortasun emozionala, eta edertasunaren estereotipoa betetzen ez duten nesken aurka indarkeria eta mespretxua erabiltzea.

Lehenengo etapetatik mutilek indarkeria-adierazpenak egiten dituzten arte edo nesketako asko mespretxatzen dituzten arte erantzun irmorik ez emateak agerian jartzen du zenbateraino dauden normalizatuta maskulinitasunaren adierazpen gisa, eta askotan jasotzen duten indargarri positiboak agerian jartzen bide du gizarteak maskulinitate-eredu hori onesten duela.

Neska-mutilen arteko harremanetan indarkeriazko jokabide asko naturalizatu izanak hainbat oztopo sortu ditu ikastetxeetan, eta oztopo horiek zaildu egiten dute (bortizkeria adierazpen bezala identifikatzea) analisi hau, bai eta horren harira egiten den prebentzio-lana ere.

Ikastetxeetan biolentzia sahiesteko ikasleen arteko harremanetan indarkeriazko jokabideak desnaturalizatu egin behar dugu.

Horretarako, ez kendu garrantzirik ikasleen adierazpenei; ez dugu esango: "Haurren kontuak dira", edo "Ez da hainbesterako".

Ikasleen kexen aurrean, ez egin ez entzunarena.

Lehen momentutik esku-hartzea eta beti erasoak jasan duena babestuko dugu.

Helburua da eskola segurua lortzea: hizkera inklusiboa; eta, batez ere, 0 Tolerantzia irainei, diskriminazioari eta indarkeriari.



**Gure ikastetxean ez dago lekurik LGTBfobiarentzat**

# Gure ikastetxean ez dago lekurik LGTBfobiarentzat

## Helburuak:

- Ikasleekin indarkeriak zerikusia duen beren harremanetan identifikatzeko gogoeta egitea. Repasar
- LGTBfobia identifikatzea eta jarrerak adostea sahiesteko.
- Hezkuntza komunitate osoaren erantzun trinkoa ikustaraztea indarkeria LGTBfobiaren kontra pertsona guztientzako eskola segurua lortzeko.

## Edukiak:

### 1- Haur Hezkuntza eta lehen Hezkuntza

- “Pauleren abenturak” bideoa, ikusi
- “Neskak eta mutilak. Norbera, den bezalakoa” bideoa, ikusi eta galderen bitartez komentatu ikasleekin.

### 2- DBH

- Bideoa ikusi
- “Gure ikastetxean ez dago lekurik LGTBfobiarentzat” testua irakurri.
- Ikastetxeetan LGTBfobia ekiditzeko proposamenak.

### 3- Irakasleria eta familiak

- Bideoa ikusi
- “Gure ikastetxean ez dago lekurik LGTBfobiarentzat” testua irakurri.
- Ikastetxeetan LGTBfobia ekiditzeko proposamenak.

### 4- Ikastetxeko ekitaldia

# 1- Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza

## Saioaren garapena

Jarraian proposatzen den testua irakasleek irakurtzeko ikasleen saioak dinamizatzeko lagungarria gerta daiteke.

Pertsonak desberdinak gara hori dela eta sentitzeko eskubidea dugu gure nahien arabera, gure identitatearen arabera. Gizarteak mutila edo neska izateko era inposatzen du, baina errealitateak esaten digu mutila edo neska izateko era asko dagoela.

Beharrezkoa da baztertzea nahiko naturala ez ikustea heteronormatibatik kanpo identitatea aukeratzen dituzten pertsonak.

Oso garrantzitsua da alde batetik, hezkuntza-komunitatearen agresio hauei erantzuna ematea; eta bestetik, adiskidetasun-sentimenduan hezitzea. Era berean, txiki-txikitatik gogoeta egiten hastea.

Talde handian galderen bitartez gaiari buruz hitz egin daiteke.

- *Adiskideak oso garrantzitsuak izaten dira, baina zerbait gertatzen bazait zer egingo dute?, Babestuko naute ala agresorearen alde jarriko dira?, zer egin dezaket nire laguna jotzen badute? Eta nire adiskidea ez bada, zerbait egingo dut?*

1. Gaia lantzen jarraitzeko bi bideo proposatzen dira.

<https://youtu.be/MfcFjAxicwg>

<https://vimeo.com/190868280>

Adinaren arabera:

Bideoak komentatu eta gelan sortzen diren hausnarketen arabera, pentsatu: jarduerak, esaldiak, talde bezala edozein bortizkeria eta LGTB pertsonen kontrakoa saihesteko hartuko dituzten jarrerak.

Atera diren ideiak idatzi ikasturte honetako irudian bai aukietan bai ostadarrean. Ikastetxean ostadar handi bat egin eta han eskegi marrazkiak.

## 2- DBH

### Bi saio proposatzen dira:

2.1. Bideoa ikusi

2.2. Ikastetxean LGTBren fobia ekiditzeko jarduerak proposatu.

#### 2.1. Bideoa ikusi



en\_españa\_2016\_Incomodo.mp4

Taldeka bideoan ikusitakoaz gogoeta egin. Talde bakoitzeko ordezkari batek talde handian egindako gogoetak azalduko ditu.

#### 2.2. Ikastetxean LGTBren fobia ekiditzeko jarduerak proposatu.

##### 2.2.1. Bakarka ondorengo testua irakurri.

#### “Gure ikastetxean ez dago lekurik LGTBfobiarentzat”

Orokorrean aniztasun- sexualarekiko jarrera diskriminatzailea da. Nahiz eta azken hamarkadotan aurrerapauso itzela eman bisibilizazioan, onarpen mailan, eta legeberrintasunean; LGTB pertsonen kontrako uko egite, agresioak, diskriminazioa eta jazarpenak ez dira desagertu.

Ikastetxeetan ere honelako ikasleriaren kontrako diskriminazioa ematen da: mehatxatzen da, iraintzen da, ez ikusiarena egiten da, umilatzen da.

Bortizkeria psikikoa denean autuestimua kaltetzen da. Badira beste hainbat portaera, bortitzatzen ez direnak, baina ezinegona eta mina sortzen dituztenak; esaterako, genero estereotipoei ez jarraitzeagatik aditzen diren txistek, esamesak. Hauek guztiak ere bortizkeriak dira.

LGTBfobia normalizatu egin dugu, beraz, garrantzia kendu izan zaio lgtb ikasleek egunero pairatzen duten bortizkeria. “Haurren kontuak” direla esaten dugu askotan.

“Marimutil” edo “marikoi” bezalako hitzei inportantzia kentzen diegu. Batzuetan aipatutako hitzak erabiltzen ditugu ez iraintzeko, agian, baina beti da diskriminazioa.

LGTB pertsonak egunero pairatzen dute: inbisibilizazioa, estigma kutsadura (defendatzen baditugu edo haiekin harreman estua izatea aski izan daiteke erasoan jomugan jartzeko), laguntza eza...

Horiek guztiak ez dira garrantzirik gabeko txantxak eta ez dira kasualitatez egiten, LGBT pertsonen kontrako agresioak banalizatzen dituen kultura sexistaren isla direlako. Egoera honi buelta emateko, interakzio hauetan parte ez hartzea ez da nahikorik, proaktiboak izan behar dugu. Baina banalizazio honen ondorioz, askotan ez da erraza behar-beharrezkoak diren erantzun trinkoak noiz eman identifikatzea, ezta erantzun eraginkorrak asmatzea ere: egoera batzuk handizkatu ahal ditugu edo ixiltasunaren legearen partaideak izan gaitezke. Ez da erraza ez, are gutxiago erantzunak bakardadean ematen badira.

Berdinen arteko tratu txarrek biktimaren eskubideak urratzen dituzte, haren osotasun psikikoa eta fisikoa; Bigarren Hezkuntzan, hain zuzen ere, honelako jazarpenek absentismo mailarekin, ikasketa aldatetekin eta eskola porrotarekin harreman zuzena dute: ez dute ikastetxera joan nahi besteen aurrean irainduta eta bazterturik izateko, edo irrigarri uzteko.

### 3.2.2. Talde lana

**Testua irakurrita, jarraian proposatzen diren jarduerak landuko dira:**

1. Honako fitxa hau baliogarria izango da ikasleriak LGBT pertsonen kontrako biolentzia-egoerak identifikatzeko.

<b>Gure ikastetxean LGTBfobia portaerak daude?</b>	<b>Banakako erantzunak</b>	<b>Taldeko erantzunak</b>
Irainak		
Isekak, gaizki esaka ibiltzea		
Mehatxuak		
Eraso fisikoak, norbait jipoitzea		
Bazterkeria, ez ikusiarena egin		

Posiblea da, gogoeta eginda LGBT pertsonen kontrako indarkeria identifikatzea eta pentsatzea jarrera proaktiboak hartzea oso-oso beharrezkoak direla. Beharbada identifikatu dugu tratu txarrak ematen ditugula edo pairatzen ditugula.

2. Hurrengo jardueran edozein bortizkeriaren kontra eta LGTBfobiari aurre egiteko ekintzak proposatuko ditugu jarrera proaktiboak lortzeko.

<b>Homofobiaren kontrako erantzunak</b>	<b>Bakarkakoak</b>	<b>Taldekoak</b>
Irainen aurrean		
Isekak eta gaizki esaka ibiltzearen aurrean		
Mehatxuak ikusten ditugunean		
Eeraso fisikoen aurrean		
Bazterkeria edo ez ikusiarena egiten denean		



### 3- IRAKASLERIA ETA FAMILIAK

#### Bi saio proposatzen dira:

2.1. Bideoa ikusi

2.2. Ikastetxean LGTBren fobia ekiditzeko jarduerak proposatu.

#### 2.1. Bideoa ikusi



en\_españa\_2016\_Incomodo.mp4

Taldeka bideoan ikusitakoaz gogoeta egin. Talde bakoitzeko ordezkari batek talde handian egindako gogoetak azalduko ditu.

#### 2.2. Ikastetxean LGTBren fobia ekiditzeko jarduerak proposatu.

##### 2.2.1. Bakarka ondorengo testua irakurri.

#### “Gure ikastetxean ez dago lekurik LGTBfobiarentzat”

Orokorrean aniztasun- sexualarekiko jarrera diskriminatzailea da. Nahiz eta azken hamarkadotan aurrerapauso itzela eman bisibilizazioan, onarpen mailan, eta legeberrintasunean; LGTB pertsonen kontrako uko egite, agresioak, diskriminazioa eta jazarpenak ez dira desagertu.

Ikastetxeetan ere honelako ikasleriaren kontrako diskriminazioa ematen da: mehatxatzen da, iraintzen da, ez ikusiarena egiten da, umilatzen da.

Bortizkeria psikikoa denean autuestimua kaltetzen da. Badira beste hainbat portaera, bortitzat jotzen ez direnak, baina ezinegona eta mina sortzen dituztenak; esaterako, genero estereotipoei ez jarraitzeagatik aditzen diren txisteak, esamesak. Hauek guztiak ere bortizkeriak dira.

LGTBfobia normalizatu egin dugu, beraz, garrantzia kendu izan zaio lgtb ikasleek egunero pairatzen duten bortizkeria. “Haurren kontuak” direla esaten dugu askotan.

“Marimutil” edo “marikoi” bezalako hitzei inportantzia kentzen diegu. Batzuetan aipatutako hitzak erabiltzen ditugu ez iraintzeko, agian, baina beti da diskriminazioa.

LGTB pertsonak egunero pairatzen dute: inbisibilizazioa, estigma kutsadura (defendatzen baditugu edo haiekin harreman estua izatea aski izan daiteke erasoan jomugan jartzeko), laguntza eza...

Horiek guztiak ez dira garrantzirik gabeko txantxak eta ez dira kasualitatez egiten, LGTB pertsonen kontrako agresioak banalizatzen dituen kultura sexistaren isla direlako. Egoera honi buelta emateko, interakzio hauetan parte ez hartzea ez da nahikorik, proaktiboak izan behar dugu. Baina banalizazio honen ondorioz, askotan ez da erraza behar-beharrezkoak diren erantzun trinkoak noiz eman identifikatzea, ezta erantzun eraginkorrak asmatzea ere: egoera batzuk handizkatu ahal ditugu edo ixiltasunaren legearen partaideak izan gaitezke. Ez da erraza ez, are gutxiago erantzunak bakardadean ematen badira.

Berdinen arteko tratu txarrek biktimaren eskubideak urratzen dituzte, haren osotasun psikikoa eta fisikoa; Bigarren Hezkuntzan, hain zuzen ere, honelako jazarpenek absentismo mailarekin, ikasketa aldatetekin eta eskola porrotarekin harreman zuzena dute: ez dute ikastetxera joan nahi besteen aurrean irainduta eta bazterturik izateko, edo irrigarri uzteko.

### 3.2.2. Talde lana

**Testua irakurrita, jarraian proposatzen diren jarduerak landuko dira:**

1. Honako fitxa hau baliogarria izango da ikasleriak LGTB pertsonen kontrako biolentzia-egoerak identifikatzeko.

<b>Gure ikastetxean LGTBfobia portaerak daude?</b>	<b>Banakako erantzunak</b>	<b>Taldeko erantzunak</b>
Irainak		
Isekak, gaizki esaka ibiltzea		
Mehatxuak		
Eraso fisikoak, norbait jipoitzea		
Bazterkeria, ez ikusiarena egin		

Posiblea da, gogoeta eginda LGTB pertsonen kontrako indarkeria identifikatzea eta pentsatzea jarrera proaktiboak hartzea oso-oso beharrezkoak direla. Beharbada identifikatu dugu tratu txarrak ematen ditugula edo pairatzen ditugula.

2. Hurrengo jardueran edozein bortizkeriaren kontra eta LGTBfobiari aurre egiteko ekintzak proposatuko ditugu jarrera proaktiboak lortzeko.

<b>Homofobiaren kontrako erantzunak</b>	<b>Bakarkakoak</b>	<b>Taldekoak</b>
Irainen aurrean		
Isekak eta gaizki esaka ibiltzearen aurrean		
Mehatxuak ikusten ditugunean		
Eeraso fisikoen aurrean		
Bazterkeria edo ez ikusiarena egiten denean		

## 4. Ikastetxeko Ekitaldia

Ikastetxean aurtengo sinbologia, ostadar handi bat egin eta aulkiak, egin eta han eskegi marrazkiak, leloak, eta abarreko ideiak.

Ikur horren bitartez, ikastetxeak diskriminazioa eta jazarpenen amaiera iragarri nahi du. Are gehiago oraindik, ostadarrak gehi aulkiek aniztasunaren aberastasuna eta askatasuna iragarritz, pertsona guztiek lekua izateko eskubidearen ikurra izan nahi dute.

- Marrazkiei, leloei argazkiak atera eta partekatu ikastetxe giza sareen bidez: twitter...,
- Ikastetxeko argazkia egin.



*Gure ikastetxean ez dago lekurik LGTBfobiarentzat*